



Ebazpena, 2017ko martxoaren 2koa, Hezkuntza Sailburuordearena, zeinaren bidez zehazten baita zein izango diren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Eskolatzeko Batzordeen osaera, funtzioak eta antolaketa- eta funtzionamenduarauak.

Bi manuk ezartzen dute ikasleen onarpena Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan: martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuak eta Hezkuntza Sailburuak urtero ematen duen Aginduak, zeinaren bidez ezartzen baita eskabideak eskatzeko eta ikasleak onartzeko epeen egutegi komuna.

35/2008 Dekretuaren 20. artikuluan, ikasturtea behin hasita dagoenean hasten diren ikasleen eskolatzeko aurreikusten da. Artikulu horren arabera, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek dute eskolatzeko horien eskumena, behin guraso eta legezko tutoreei entzun ondoren; horretarako, berariaz ezarritako organoen aholkua jasoko dute, halakorik ezarritako gero.

Horregatik, ebazpen hau ematen da, behin ikasturtea hasita dagoenean hasten diren ikasleen eskolatzeko-prozesuari ekingo dioten organoen osaera eta funtzionamendua arautzeko.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT

1.- Eskolatzeko Lurralde Batzorde bat eratuko da lurralde historiko bakoitzean. Eskolatzeko Batzordeek honako osaera hau izango dute:

- Hezkuntzako lurralde-ordezkaria, zeinak Planifikazioko Lurralde-arduradunaren esku utzi ahal izango du Batzorde-burutza.
- Hezkuntza Ikuskatzailearen ordezkaria
- Hezkuntza Berriztatzeoko lurralde-arduraduna
- Planifikazioko lurralde-arduraduna
- Planifikazioko teknikaria, zeinak batzordearen idazkari-lanak egingo baititu.
- Lurralde-ordezkariek bere iritziz batzorderako egokiak izan daitezkeen pertsonak sartu ahal izango ditu Batzordean, iraunkorki edo puntualki.

2.- Eskolatzeko Batzordeek honako funtzio hauek izango dituzte:

a) Erabakitzea zein ikastetxetan eskolatuko diren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleak, baldin eta hezkuntza-sistemaren ohiko matrikulazio-epaia igaro ondoren hasten badira edo ikasturtean zehar ikastetxetik aldatzen badira.



Erabaki hori hartzeko, familiak espresuki eskatutakoaz gain, Batzordeak EAEko hezkuntza-sisteman modu inklusiboan eskolatzeko printzipioari jarraituko dio eta, zehazki, honako irizpide hauei:

- Ikastetxea familiaren etxetik hurbil egotea.
- Ikastetxean eskolatutako anai-arrebak izatea, ahal bada anai-arrebak ez bereizteko.
- Prozesu honen bidez anai-arreba bat baino gehiago eskolatzea eskatzen bada, erabakiak bateratua izan behar du, ahal bada.
- Funts publikoekin finantzatzen diren ikastetxe guztietan, eskolatzea inklusiboa eta orekatua izango da eskola eragin-eremu guztietan, hau da, eremu bakoitzeko ikasleen aniztasunaren erakusgarria.
- Ahal dela, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak D edo B eredua eskaintzen duten ikastetxeetan eskolatuko dira.
- Oinarrizko Hezkuntzaren bigarren ziklotik aurrera hasten diren ikasleen kasuan, beste faktore batzuk hartuko dira kontuan, hala nola adina, aurretiko eskolatzea edo hizkuntza-konpetentzia.
- Eskolatzeko eskaera egiten bada familia-unitateak etxez aldatu behar duelako – gurasoek edo legezko tutoreek nahitaez mugitu behar izatearen edo genero-indarkeriagatik egoitza aldatzearen ondorioz–, eskatzailea eskolatuko da, lehentasunez, gurasoen edo legezko tutoreen etxebizitza edo lanaren eragin-eremuan daukan ikastetxe batean.
- Gela berean, ez dira eskolatuko Eskolatzeko Batzordearen bidez eskolatutako bi ikasle baino gehiago, betiere beste aukera batzuk badaude ikastetxearen eragin-eremuan edo harekin muga egiten dutenetan; halakoetan, ikastetxearen eta etxearen arteko distantzia bi kilometrokoa izango da, gehienez ere.

Aurreko irizpideen arabera eskolatu ahal izateko, Batzordeak ikaslearen egoera pertsonal eta familiarri buruzko informazioa eskuratu ahal izango du beste administrazio batzuetatik.

b) Hartutako erabakien aurka egindako erreklamazioak eta alegazioak aztertzea eta txostena Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari aurkeztea, zeinak erreklamazio horiek ebatziko baititu.

c) Batzordearen bidez eskolatutako ikasleei arreta egokia emateko beharrezko diren baliabideak proposatzea Hezkuntza Saileko Ikastetxeen Zuzendaritzari.

d) Hurrengo urterako ikasleak onartzeko prozesuan, Batzordearen bidez eskolatutako ikasleen jarraipena egitea.



e) Batzordearen bidez eskolatutako ikasle guztiei buruzko informazioa eguneratuta izatea.

3.- Eskolatzeko Batzordeek honako antolaketa- eta funtzionamendu-irizpideen arabera jardungo dute:

- a) Batzordearen idazkariak egingo du batzarrerako deialdia eta jasoko du batzar horren akta. Batzarren maiztasuna eskolatu behar den ikasle-kopuruaren arabera erabakiko da.
- b) Eskolatzeko Batzordeak irailetik aurrera jardungo du, ohiko matrikulazio-prozesua amaitu ondoren.
- c) Eskolatzeko Batzordeak berak garatutako jarduerari buruzko txostena egingo du hiru hilean behin; txosten hori Ikastetxeen Zuzendaritzara eta 35/2008 Dekretuz araututako Eskolatzeko Bermeen Batzordera bidaliko da.
- d) Ikasturtea bukatutakoan, Batzordeak bere jarduerari buruzko memoria egingo du.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 2a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Sin.: Maite Alonso Arana